

FRANCISCO ESCUDERO NAZIOARTEKO VIII AKORDEOI KONPOSIZIO SARIKETA

FRANCISCO ESCUDERO NAZIOARTEKO AKORDEOI KONPOSIZIO SARIKETA

- **Hauspoz**, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak "**Francisco Escudero**" Nazioarteko **Konposizio Sariketaren** zortzigarren edizioaren deialdia egiten du. Sari banaketa Zarautzen (Gipuzkoa) egingo da, 2015ko Irailak 12.
- Sariketaren helburu nagusia, akordeoiko obra berrien sorkuntza indartzea da, bakarka nahiz Kamara Musikan
- Akordeoiarentzat sortutako obrak, bakarka edo Kamara Musikan, guztiak maila berean. Iraupena, gehienez, 10 minutukoa izango da. Kamara Musikan, gehienez lau instrumentuz osaturiko obrak izan behar dute (gutxienez akordeoi bat barne).
- Partaideak edozein adin eta jatorrikoak izan daitezke.
- 2011ko urtarrila baino lehen sortutako obrak ez dira onartuko.
- Aurkeztutako obrak, aurretik sortutako enkarguak izan daitezke, baina edozein kasutan ere, estreinatu gabeak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Aurretik sarituak edota argiratuak izan badira ere ez dira onartuak izango.
- Zati elektroakustikorik aurkeztuz gero, honako formatu hauetako batean izan beharko du: Audio cd (ez wav), 44.1 KHz eta 16 bit-etan, edo Mp3. Cd-an daudenak, posta ziurtatuz bidaliko dira, partiturrekin batera, eta Mp3-an daudenak info@hauspoz.org-era.
- Hauspozek, saritutako obrak argitaratuko ditu. Epailleek hala baderitzote, saritu gabeak ere argitaratu ahal izango ditu Elkarteak.
- Konposizioak bi modutan aurkez daitezke: eskuizkribu gisa (grafia argiarekin, zuzenketa edo ezabaketarik gabe) edo ordenagailuz idatzita. Saritutako lana ordenagailuz idatzi beharko da derrigorrez, eta egilearen erantzukizuna izango da, kopia informatizatua antolakuntzari helaraztea, inprimaturik, emaitzak eman eta handik 30 egun baino lehen.
- Hauspozek, obra sarituak Arrasateko lehiaketetan erabiltzeko ahalmena izango du. Halaber, obren grabaketa, produkzio edo banaketa egin ahal izango du, konposatzaileek, horren truke, legeak adierazten dituzten irabaziaz jasotzeko eskubidea izango dutelarik, eta ez besterik.
- Konposatzaileek obraren **hiru** kopia bidaliko dituzte, bertan bere izenik (edo bere nortasuna azal dezakeen zeinurik) ipini gabe, kartazal batetan sartuta. Kartazal honetan goitizen edo kode bat idatziko da. Honekin batera, goitizen edo kode berbera duen beste kartazal batetan sartuta, obraren izenburua, egilearen datuak, telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoko bat bidaliko dira.
- Izenemate tasa: 30 €. Hauspozeko bazkideentzat, 10 €.
- Obrak aurkezteko azken eguna **Irailak 4** izango da.
- Antolatzaileek, epaimahaikideek hala adostuz gero, sariak hutsik utz ditzakete. Kasu horretan, eta epaimahaikideak ados egonez gero, saria pertsona edo elkarte bati eman ahal izango litzaioke, bere lana edo ibilbidea kontutan hartuta.
- Lan irabazlearen berri ematean (kontzertu-programetan, argitaratzean zein bestelako soinu-adierazpideetan) honako lema hau erabili beharko da derrigorrez: "**Francisco Escudero**" Nazioarteko VIII. Konposizio Sariketako irabazlea.
- Sariketan parte hartzeak, oinarrien onarpena dakar berarekin.
- Epaimahaia konposatzaile ospetsu eta adituez osaturik egongo da.
- Epaimahaikideen erabakiak apelaezinak izango dira.
- Epaimahaiaren ondoan, Miren Iñarga, akordeoi pedagogian aditua egongo da, boto eskubiderik gabeko mahaikide bezala.
- **Lehen Saria** 1.500 euro eta obraren edizioak osatuko dute, eta **Bigarren Saria** 500 euroko diru-sariak. Diru-sariak, legeak agintzen duen zergei loturik egongo dira.

BABESLEAK:



ANTOLATZAILEA:

HAUSPOZ

www.hauspoz.org

e-mail: info@hauspoz.org

Tel.: + 34 606 140 352

